



6. eranskina:

KUDEAKETA-POLITIKA.

INOX NAPARRA, S.A. enpresaren zuzendaritzak uste du gure jardueretan kalitatea, ingurumena eta lan-arriskuen prebentzioa kudeatzea funtsezko elementu bat dela gure enpresaren jardunean. Gure erakundearen testuinguruaren barnean, kontuan hartuta kudeaketa-politika hori (gure zuzendaritza estrategikoaren esparrua ezartzen duena), alderdi interesdunen (barnekoak zein kanpokoak) beharrak eta itxaropenak ezartzen dira, betiere aintzat harturik zer testuingurutan aritzen garen lanean eta gure negoziatorako arriskuei eta aukerei begira.

Horretarako, honako oinarritzko printzipio hauek onartu behar dira:

- Gure fundizio- eta mekanizazio-prozesuek gure kanpo&barne alderdien (langileak, bezeroak, hornitzaileak, Administrazioa, interes-taldeak...) eskakizunak asebate beharko dituzte, bai eta gure jardueri aplikatzekoak diren lege-betekizunak eta araudiak ere. Izan ere, horregatik ditu gure enpresaren filosofiak honako ezaugarri hauek:
- Berehalako erantzuna ematea gure bezeroen eskaerei,
- Gure bezeroen beharretara hobekien egokitzen diren soluzio teknikoak eskaintzea.
- Aurreikusitako epeak betetzea, bezeroek exijitutako ezaugarriak ere betez.
- Ingurumen-legeriatik eratorritako betekizun guztiak eta aplikatzekoa dugun LAP (Lan Arriskuen Prebentzioa) araudia betetzea eta betearaztea.
- Etengabeko hobekuntza aplikatzea egiten dugun guztiari. Barne direla kutsaduraren prebentzioa, kalteen prebentzioa, osasunaren narriadura eta jardueraren hobekuntza.
- Ahalik eta etekin handiena lortzea, gure baliabideen erabilera ekonomikoa eta arrazionala sustatuz.
- Pertsonen arteko berdintasuna sustatzea eta ziurtatzea, beren generoa, estatusa, ...alde batera utzita.
- Gure lanak egitea ezarritako jarraibide, arau eta zehaztapenekin bat.
- Gertatu baino lehen aurreikustea akatsak.

Egunetik egunera hobeak izatera daude bideratuta erabaki guztiak, kalitatez, ingurumena errespetatuz eta laneko segurtasuna ziurtatuz.

Enpresako langile bakoitzak laguntzen du, bere lanpostutik, gure kudeaketa-helburuak gauzatzeko. Horregatik, norberaren xedea da, langileengandik hasi eta zuzendaritzaraino, lan bikaina egitea.

Horrek dakarren esfortzua aitortuta, Zuzendaritzak beharrezkoak diren ezagutzak, bitartekoak eta baliabideak jarriko ditu bere kudeaketa-sistema ezarri, mantendu eta hobetzeko UNE EN ISO 9001, UNE-EN-ISO 14001 eta ISO 45001 arauen arabera; halaber, konfiantzazko giro bat sortuko du, langile guztien parte-hartzea erraztuko duena kudeaketa eta enpresaren helburuak lortzeari begira.

Helburu horiek berrikusi eta enpresa gisa dugun filosofiara egokitzen dira, baita gure inguruko merkatu eta gizartean gertatzen diren aldaketetara ere. Azkenik, ezartzea gure enpresaren Zuzendaritzak berrikusi egiten duela politika hori merkatuan gertatzen diren aldaketetara uneoro egokitzeko.

Stua. Zuzendaritza.

Etxarri Aranatz, 2017ko urtarrila.